



## **BERGARAKO ADINEKO PERTSONEN KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA**

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 2023/01/30ean

# BERGARAKO ADINEKO PERTSONEN KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA

## 1. artikulua. Izaera

- Bergarako Adineko Pertsonen Udal Kontseilua partaidetzan oinarritutako organoa da eta berau osatzen dute udalak eta adineko pertsonen alde lan egin nahi duten herritar, talde nahiz elkarteek.
- Kontseilua da organo aholkularia, kontsultakoa, informatzailea, ekintzen sustatzailea eta behatzailea.

## 2. artikulua. Helburuak

Adineko Pertsonen Udal Kontseiluak oinarritzko helburu hauek izango ditu:

- Adineko pertsonen alde lan egin nahi duten pertsonen eta eragile sozialen sarea sortzea.
- Adineko pertsonen partaidetza, ahalduntzea eta protagonismoa bultzatzea.
- Adineko pertsonekin lotutako gaien inguruan hausnarketa egitea, elkarlanerako adostasun-puntuak biltzea eta adineko pertsonen ongizatea bultzatzeko ideia berriak sustatzea.
- Bergarako adineko pertsonen egoerak identifikatzea eta horiei erantzuteko eta gainditzeko baldintzak sustatzea.
- Adineko pertsonen eskubideak eta interesak defendatzea.
- Adineko pertsonen arloarekin zerikusia duten herriko edozein gertaera jasotzea, aztertzea eta behar den erantzuna bideratzea.

## 3. artikulua. Funtzioak

1. Aurreko artikuluan zerrendatutako helburuak betetzeko, kontseiluak honako funtzio hauek beteko ditu:

- Bergarako adineko pertsonen errealitateari buruz dagokion informazioa jaso eta biltzea.
- Bere ekimenez edo hala eskatzen zaionean, udal jarduera-planetan adineko pertsonen ikuspuntua jasotzeko neurriak sustatzea, udalari iradokizunak egitea, horretarako behar den informazioa jasoz, azterketak eginez, txostenak burutuz edo bestelako baliabideak erabiliz.
- Adineko pertsonekin lotutako gaietan, udalaren eta herritarren edo kolektiboen arteko bitartekari-lanak egitea; euren eskaerak, proposamenak, salaketak, iritzi ezberdinak jaso eta kudeatzea.
- Urteroko adineko pertsonetikiko plangintza zehazteko neurri, jarduera, kanpaina eta programak diseinatu eta bideratzen laguntzea.
- Urteroko adineko pertsonekin erlazionatutako plangintzaren eta esku hartzearen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

- Pertsona nagusiei zuzendutako ekintza eta zerbitzuak ezagutaraztea, baloratu eta jarraipena egin eta beharrezkoak diren berriak proposatzea.
- Adineko pertsonen bizi baldintzak hobetzeko gai propioak proposatzea.

#### 4. artikulua. Osaketa

Kontseiluko partaide, hitzarekin eta botoarekin, honako hauek izan daitezke:

- Alkatea edo zinegotzi delegatua, kontseiluko lehendakari lanetan.
- Gizarte Zerbitzuetako arduraduna, edo horren ordezkari udalak izendatzen duena, kontseiluko idazkari lanak ere beteko dituena.
- Zinegotzi bat Udaleko talde politiko bakoitzetik.
- Adineko pertsonen alde lan egiten duten herriko eragile politiko eta sozialak eta talde, elkarte eta entitateak, betiere gaiarekin interes egonkorra dutenak.
- Norbanako bezala Kontseiluan parte hartu nahi duten udalerriko bizilagunek. Pertsona hauek 65 urte beteta eduki beharko dituzte.
- Pertsona nagusiekin lan egiten duten profesionalak (udal teknikariak, osasun arlokoak, zerbitzu psikosozialetakoak, beste zerbitzu batzuk –egoitza, eguneko zentroa...–...).

Adineko pertsonen kontseiluak kontuan izan beharko ditu genero-parekidetasuna eta adineko pertsonen aniztasuna (adin, funtzionalitate, jatorri eta abarretan).

Kontseilua berrituko da gutxienez Udalbatza berria osatzen den bakoitzean.

#### 5. artikulua. Kontseiluko organoak

Adineko pertsonen kontseiluak honako organo hauek izango ditu:

##### 1. Lehendakaritza:

Kontseiluaren lehendakaritzak funtzio hauek beteko ditu:

- Kontseiluko ordezkaria izan udalerrian.
- Kontseiluko bileretarako deialdiak egin eta bilerak gidatu.
- Kontseiluak hala proposatuta, partaideen altak eta bajak jakinarazi.
- Kontseiluko proposamenak aurkeztu eta defendatu dagokion batzorde politikoan.
- Kontseiluko proposamenen garapenaren berri eman, dagokion batzorde politikoan.

##### 2. Idazkaritza

Kontseiluko idazkariak funtzio hauek beteko ditu:

- Bileretarako deialdiak prestatu eta bidali.
- Bileretako aktak egin.
- Bileretan gaiak aztertzeko eta erabakiak hartzeko behar den dokumentazioa eta informazioa bidali.
- Eztabaidak gidatu eta bideratu.

- Kontseiluaren proposamenak aurkeztu eta defendatu dagokion batzorde politikoan, gaiak edo egoerak hala eskatzen duenean.

### 3. Kontseiluko kideak

Kontseiluko kideek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Bileretan aktiboki parte hartu.
- Bileretan hartutako konpromisoak bete.
- Kontseiluko bileretan landutako edukien berri eman bere elkarteko kideei.
- Kontseiluko arautegia onartu eta bete.

### 6. artikulua. Kontseiluan sartzea

- Laugarren artikuluan aipatutako elkarte, talde eta norbanakoek, kontseiluan sartzeko, eskaera egin behar dute, lehendakariari zuzendutako eskaera-orka bete.
- Kontseiluan parte hartu nahi duenak edozein momentutan egin dezake sartzeko eskaera.
- Kontseiluan sartzerakoan emandako datuen bat gerora aldatuz gero, kontseiluko idazkariari jakinarazi beharko zaio.

### 7. artikulua. Kontseiluko partaide izateari uztea

Kontseiluko kide izateari utziko zaio honako kasu hauetan:

- Partaideak hala eskatzen bada.
- Taldea nahiz elkarte desegiten bada.
- Arauak betetzen ez baditu.
- Justifikaziorik gabe bileretara ez bada joaten (hiru aldiz jarraian edo bost era txandakatuan).
- Kontseiluko printzipioen aurkako jarrera eduki edo horrelako jarduerak egiteagatik, gainontzeko kide gehienek iritziz.

### 8. artikulua. Kontseiluaren funtzionamendua

- Kontseiluko ohiko bilera hiru hilean behin egingo dira; eta ezohikoak, berriz, lehendakariak edo kideen herenak horrela eskatzen dutenean.
- Lehendakariak deialdiak idatziz egingo ditu; ohiko bileren kasuan 7 egun lehenago, eta ezohikoen kasuan 2 egun aurretik.
- Lehentasunez erabakiak denon adostasunarekin hartuko dira, eta hori ezinezkoa izanez gero, bertaratutako gehiengo soilez.
- Bilkura bakoitzaren akta egingo da, eta bertan jasoko dira bilkurara bertaratutako izenak, hasierako ordua, bukaerakoa, erabakitako gaiak eta, kasuan kasu, bozketen emaitzak.
- Lan-batzordeak sortu ahal izango dira baldin eta gehiengoaren iritzirako gaiak aztertzeko beharrezkoak badira. Sortzean zehaztuko da funtzionamendua eta kideak zeintzuk izango diren.

*9. artikulua. Arautegi osagarria*

Erregelamendu honetan aurreikusi ez den orotarako, indarrean dagoen eta aplikagarri izan daitekeen legedia aplikatuko da.